

# Taldeko egutegia

Egutegi edo kalendarioei buruz jardungo dugu sekuentzia honetan. Euskal Herrian dauden ezagunenetako batzuk aipatuko ditugu eta, bukaeran, taldeko egutegia osatuko dugu.

Ariketa hauek dituzu hemen:

- Gaiari sartzen hasi eta irratsaio bateko sarrerari buruzko galderari erantzun.
- Entzun audioa osorik eta ulermen-galderei erantzun.
- Entzundakoaren testu-zati bat osatu, zenbait aditzari zehar-estiloa, erlatiboa edo aditz-izen funtzioa emanaz.
- Taldeko egutegia osatu denon artean, hilabeteak testu eta argazkiekin hornituz.



## Urtarrila 2019

ASTELEHENA    ASTEARTEA    ASTEAZKENA    OSTEGUNA    OSTIRALA    LARUNBATA    IGANDEA

1    2    3    4    5    6

Tamarizak XIX. mendearen amaieran elorri ziren Donostiara. Zinegotzi batek aldaska batzuk ekarri zituen Pariseko erakustoki bafetik Donostiako itsas paseatekuan nola egokitzen ziren probatzeko. Tamarizak ibai-zuhaitzak dira eta ez dute tamarindoeekin zerikusirik. Azken horiek zuhaitz tropikalak dira (fruta-arbolak ere bai), eta bi izenak fonetikoki hain antzekoak direnez, bata eta bestea nahasi egin ohi dira.



### 1. Egutegirik bai etxean?

Komentatu ondokoarekin puntu hauek:

- Jartzen al duzue egutegi edo kalendariorik etxean? Zein?
- Erosi egiten duzue ala doan ematen dizuzete?

Entzun audioaren hasiera eta erantzun modu laburrean galdera honi:

Audioaren hasieratik kazetariak egutegiei buruz hitz egiten dute. Baina, beraiek ba al daukate egutegirik etxean?, baldin badaukate, zein?



<https://labur.eus/PYtm1>

## 2. Audioa ulertzen

Entzun orain audioa osorik eta erantzun galdera hauetako modu laburrean.

1. Zer asmorekin sortu zen Iparraldeko ikastolen Seaska egutegia?


2. Zer ageri dira ilargiaren egutegiko orri bakoitzean? Osatu zerrenda:

o esaera zahar bat

o ilargi-aroak grafikoki adierazita

o garaiko eta bertako barazkien zerrenda

3. Arantzazuko egutegiko zer parte estimatzen du jendeak asko?



Jakoba Errekondoren eskutik baratztea, fruitu arbolak eta basoko lanak. Pello Zabalak aukeratutako esaerak. Xabier Akizuk ilargiaren eraginaren saloak eta "Ilargiari begira". Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua.

## 3. Arantzazuko egutegiko testua osatzen

Osatu Arantzazuko egutegiari buruzko testua; horretarako, aukeratu zein aditz jarri hutsune bakoitzean; aditz hori moldatuta idatzi, esaldiaren barruan daukan funtzioa betetzeko: aditz-izena, erlatiboa edo zehar-estiloa.

erakutsi	sartu	bete	egon
----------	-------	------	------

**Joxe M. Arregi, Arantzazuko fraidea.** Guk takoa deitzen diogu, takoa, Euskal Herriko sukalde askotan

Egunero-egunero orritxo bat dauka, eta orritxo horretan bi parte dauzka.

Lehenengo partean, aurreko partean jartzen ditugu eguna, noski, eta gero ba eguzkia noiz ateratzen den, noiz

. Gero beti, nik uste dut, jendeak asko estimatzen duena da ba zeratxo bat,

esalditxo bat jartzen dugu hor: dira esaera zaharrak, ba sarritan errepikatuz baina bueno, bizitzako zentzua edo

jakituria hori  . Eta atzeko partean, berriz, gauza asko jartzen ditugu, 365 egun

ez da erraza izaten eta.

## 4. Gure egutegia

Gelako egutegia egin behar duzue talde txikitan jarrita. Talde bakoitza urtaro bateko hilabetez arduratuko da, eta elementu hauek jarri behar dituzue:

- **Euskal esaera zahar bat** (Esaera zaharrak topa ditzakezu Interneten; hemen helbide bat)
- **Zuek asmatu edo aukeratutako esaera bat: literarioa, jendeari laguntzeko horietako esaldiak...**
- .....

Saiatu hilabete bakoitza argazkiz edo marrazkiz hornitzen.

Esaterako:

- **Esaera zaharra:** Urtarrila euritsu, urtea dirutsu.
- **Hileko esaera:** Aldatzea ez da beti derrigorrezkoa, egokitzea akaso.

Bukatzeko, osatu egutegi osoa taldeka egindakoa batuz.



# ERANTZUNAK

## 1. Egutegirik bai etxean?

Kazetariak ba al daukate egutegirik etxean?, baldin badaukate, zein?

Bai. Neskak familiako argazkiekin egindakoa; mutilak Pirineos aldizkarikoa eta Argiako takoa.

## 2. Audioa ulertzen

1. Zer asmorekin sortu zen Iparraldeko ikastolen Seaska egutegia?

*Iparraldeko ikastoletarako dirua irabazteko.*

2. Zer ageri dira ilargiaren egutegiko orri bakoitzean? Osatu zerrenda:

- esaera zahar bat
- proposamen ekologiko bat
- ilargi-aroak grafikoki adierazita
- basoan edo baratzean egin beharreko lanak
- garaiko eta bertako barazkien zerrenda
- Ilargiaren eragina landareetan

3. Arantzazuko egutegiko zer parte estimatzen du jendeak asko?

*Esaera zaharrena*

## 3. Arantzazuko egutegiko testua osatzen

JOXE M. ARREGI, ARANTZAZUKO FRAIDEA.

Guk takoa deitzen diogu, takoa, Euskal Herriko sukalde askotan **egoten dena**.

Egunero-egunero orritxo bat dauka, eta orritxo horretan bi parte dauzka. Lehenengo partean, aurreko partean jartzen ditugu eguna, noski, eta gero ba eguzkia noiz ateratzen den, noiz **sartzen den**. Gero beti, nik uste dut, jendeak asko estimatzen duena da ba zeratxo bat, esalditxo bat jartzen dugu hor: dira esaera zaharrak, ba sarritan errepikatuz baina bueno, bizitzako zentzua edo jakituria hori **erakusten dutenak**. Eta atzeko partean, berriz, gauza asko jartzen ditugu, 365 egun **betetzea** ez da erraza izaten eta.

# TRANSKRIPZIOA

KAZETARIA 1. Ziurrenik, zuetako askok datorren urteko egutegiren bat ere jasoko zenuten etxean. Olaia, zuk zer-nolako egutegia jartzen duzu etxean? Edo, beharbada, galdera izan beharko litzateke egutegik, kalendariorik, jartzen duzun?

KAZETARIA 2. Bai, bai. Egutegia beti jartzen dugu etxean; sarreran bere txokoa badu. Gainera, familian egiten dugun egutegia da; bueno, nire ahizpak egiten du. Egutegia da, guk bidaltzen dizkiogu argazkiak eta gero berak egiten du.

KAZETARIA 1. Modan jarri da hori, bai.

KAZETARIA 2. Eta zuk, Manu, egutegirik jartzen al duzu?

KAZETARIA 1. Begira, bai. Sukaldean jartzen dugu Pirineos aldizkariko kalendariora, orrialde handiak dituena; eta gero Argiako takoa ere erabiltzen dut.

KAZETARIA 2. Oraindik egutegirik ez baduzue, edo aurten zein jarriko duzuen erabaki ez baduzue, guk ideia pare bat emango dizkizuegu.

KAZETARIA 1. Oso ondo.

KAZETARIA 2. Klasiko batetik hasiko gara, Seaskako egutegiarekin hasiko gara. Zenbatek ez ote zuten aukeratuko euren seme-alaben izena egutegi honi esker! Ba Ramuntxo Etxeberri, Seaskako langileak, egutegi honen historiaren laburpen txiki bat egin digu.

RAMUNTZO ETXEBERRI SEASKAKO LANGILEA. Ikastolako egutegiaren ideia ukan zuten, duela 30 urte baino gehiago, Iparraldeko ikastoletako gurasoek. Nahi zuten aterabide bat atzeman diru pixkat egiteko Eguberri garaian. Pentsatu ziren aski hurbildik segitzea santutegi klasikoa, gehitzea euskarazko izena, sailduaren euskarazko izena. Pentsatu ziren ere mitologiatik edo literaturatik agertzen diren izenak gehitzea.

KAZETARIA 1. Seaskako egutegia izan liteke, beraz, aukeretako bat. Beste bat da udalek, udaletxeek argitaratzen dituzten egutegiak.

KAZETARIA 2. Ba bai, badirudi baietz. Egutegi arrakastatsuen zerrendan jarri beharko genituzkeela udaletako egutegi hauek.

KAZETARIA 1. Ilargiaren egutegia ere badago.

KAZETARIA 2. Bai, bai, bai. Eta ilargiaren egutegiaren xehetasunak emango dizkiguna Jakoba Errekondo agronomo paisajista.

JAKOBA ERREKONDO. Egutegi honek hasteko hileroa esaera bat ekartzen digu Pello Zabalak aukeratutakoa. Eta gero, baita ere, nekazaritza ekologikoan eta eredu ekologikoari lotutako esaera bat edo proposamen bat hilabete horretan osatzeko gure elikadura eta abar. Gero, eta agian jendeak gehiena ezagutzen duena da ilgora eta ilbehera eta, era berean, ilzaharra eta ilberri-zikloak grafikoki oso garbi adierazten ditu.

Baita ere, hileroa azaltzen dira bai baratzean edo ortuan, fruitu-arboletan eta basoan lanak noiz egin behar ditugun, hilabete bakoitzean zein lan dauden. Gero, baita ere, hileroa garaiko eta bertako barazkia zeintzuk diren, jakiteko kalitatezkoak zein diren –zergatikan, klaro, gaur egun denetatik topatzen dugu urte osoan eta ez dakigu bertakoa den, nongo den, urrutitik ekarri diguten...– Eta gero amaitzeko, baita ere, bukaeran azaltzen da ilargiaren eraginaren atala esplikatuz nola den bere eragina landareetan.

KAZETARIA 2. Amaitzeko, egutegi klasikoago bat ekarriko dugu, ze Arantzazuko egutegiari buruz arituko gara datozen minutuetan.

JOXE M. ARREGI, ARANTZAZUKO FRAIDEA. Guk takoa deitzen diogu, takoa, Euskal Herriko sukalde askotan egoten dena. Eguneroko-eguneroko orritxo bat dauka, eta orritxo horretan bi parte dauzka. Lehenengo partean, aurreko partean jartzen ditugu eguna, noski, eta gero ba eguzkia noiz ateratzen den, noiz sartzen den. Gero beti, nik uste dut, jendeak asko estimatzen duena da ba zeratxo bat, esalditxo bat jartzen dugu hor: dira esaera zaharrak, ba sarritan errepikatuz baina bueno, bizitzako zentzua edo jakituria hori erakusten dutenak.

Eta atzeko partean, berriz, gauza asko jartzen ditugu, 365 egun betetzea ez da erraza izaten eta.